

## **Etika Publikorako Batzordea**

**Aztergaia: 1/2019**

### **ERABAKIA, (...)KO HAINBAT SAIL ETA DIBISIOTAKO ARDURADUNEK AIPATU ERAKUNDE HORREN LEHENDAKARI (...) JAUNAREN JARDUKETA DELA-ETA JARRITAKO SALAKETARI BURUZKOA.**

1.- 2019ko urtarrilaren 18an, urte bereko urtarrilaren 23ko data duen idatzi bat erregistratu zen *Zuzenean*-Herritarrentzako Zerbitzuan; idatzi horren bidez, EPB honetara zuzendu dira, lehenengo aukera gisa, (...) –hemendik aurrera “salatzaileak”–, eta eskatu dute lehenbailehen bideratzeko (...)an sortu den egoera, langileei eta (...)ko komunitateari eragiten baitie.

Aipaturiko idatzian, salatzaileek adierazten dute (...) jauna (...)ren lehendakari izendatua izan zela Dekretuaren bidez, eta jarraian esaten dute ezen orain arte izandako zuzendariekin, bost gutxienez, ez dutela inoiz bizi izan gaur egun nozitzen ari diren bezalako egoerarik. Esaten dute, halaber, idatzia erakundeko jende gehiagok ere izenpetuko lukeela, baina oharturik horrek izan ditzakeen ondorioez, eta zuhurtziagatik, nahiago izan dutela prozeduraren hasierako fase honetan ez inplikatzeari.

3.- Jarraian, idatziaren 12 orrietan, (...)ren lehendakariaren “jarduketa errepikatuak” zehazten dituzte, uste baitute Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide Kodearen aurkakoak izan daitezkeela.

4.- Salatzaileek salatzen dituzten egitateak, zehaztasun handiz adieraziak, lau ataletan sailkatuta daude, epigrafe hauetan:

a) Antolaketa

b) Kudeaketa

e) Irudia

d) Langileen kontratazioa

5.- Salatzaileek honela sintetizatu dute, bestalde, idatziaren edukia:

“Laburbilduz, (...) jaunak agintekeriaz dihardu, eta bere gain hartzen ditu erakundeko beste maila batzuei dagozkien ardurak, Zuzendaritza Batzordeko kideen isolamendua bultzatuz eta haien izen ona publikoki kaltetuz [4. orr.]

“Egoera horrek gogorik eza eta beldurra eragin ditu langileengan, eta, ondorioz, osasun-arazoak.

Langile batzuek iraingarri eta umiliagarritzat behintzat jotzen dute ematen dien tratua, eta osasun-arazoak izaten hasi dira.

Hori guztia sortutako giroaren ondorioa da, eta, denborarekin, okerrera doa egoera, ez baita lana baloratzen, baizik eta men egitea; batez ere, iritzi eta alternatiba ezberdinak proposatzea gaitzesten da, eta diskriminazioa eragiten da beren irizpide profesionala ikuspuntu tekniko batetik defendatzen dutenen eta ez dutenen artean. Lehenengoek bakarrik ateratzen dira kaltetuak eta desprestigiatuak.

Lehendakariaren jokabideak segurtasun-falta eta beldurra eragin du langileen artean, eta lana behar bezala egitea eragozten du [8. orr.].

“Hartutako erabakiak –hedabideetan ez agertzea, azoketara ez joatea eta bezeroei eragiten dien eguneroko kudeaketa geldiaraztea– mezu bat transmititzen du: komunitateko gehienei iruditzen zaie lehendakariak ikusezin bihurtu nahi duela (...), eta ez dakite zein den estrategia horren oinarria; izan ere, erakunde ezberdinek justu kontrako adierazten dute publikoki.” [9. orr.]

“Aipatutako jokabideez gainera, nabarmentzekoa de (...) jaunak ondasun publikoen erabilpenean erakusten duen etika-falta (auto ofiziala, erabilera eskusiboko lokalak edo aparkatzeko baimenak)” [12. orr.]

“Laburbilduz, (...)ren portaerak Zuzendaritza Batzordeko kide guztiei eragiten die, profesionalki zein osasunaren aldetik, (...)ren irudia kaltetzen du, eta arriskuan jartzen du gaur egun ditugun bezeroak mantentzea eta, horrekin batera, (...)ren etorkizuna bera.” [13. orr.]

6.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 apartatuaren bigarren tartekiak aipatzen dituen tresna telematikoak baliatuta, jarraian aipatzen den erabakia hartu du.

## **ERABAKIA**

### **I.- AURREKARIAK**

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako EJK sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea izan zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeke erronkari erantzutea ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua integritatea eta eredugarritasuna sustatzea da, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahaleginduz.

2.- EJK-k bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3 apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

## **II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA**

1.- Bat etorri 4/2015 eta 8/2015 erabakiekin, kasu honetan ere pentsatzen dugu beharrezkoa dela gure irizpenaren esku jarritako gaia aztertu baino lehen honetaz ohartaraztea: EPB honek ezin ditu irizpenak eman etikaren arloan zuzenean edo zeharka eragina izan dezakeen giza bizitzaren edozein alderdiri buruz, botere mugatuak baititu. EPB honen zeregina xumeagoa eta eskuragarriagoa da: ebaztea EAEko sektore publikoko kargu publikoak EJKn finkatutako jokabidera egokitzeari buruz egiten diren kontsulta eta salaketak. Ez da bere eginkizunetan sartzen batzordearen irizpenaren esku jarritako jokabideak absolutuki etikotzat jo daitezkeen ala ez erabakitzea, baizik eta jokabide horiek EJKn ezarritako balio, printzipio eta jokabideen kontrakoak diren zehaztea.

Bestela esanda: EPB honek diharduen eremu subjektiboak ez dauka izaera unibertsalik, zeren eta EJKren 2.1 apartatuan “hartzaileak” epigrafearen barruan zehazten diren pertsonen bakarrik eragiten baitie, eta ez beste inori. Eta bere irizpenaren oinarrian dauden parametro

etikoaren barruan ez da sartzen balio moral guztien unibertsoa, baizik eta EJKn jasotako balio, printzipio eta jokabide zehatzak.

2.- Bestalde, komeni da gogoraraztea EJK-k, zeina Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu baitzen, EHAAn argitaratzen denetik aurrera sortzen dituela ondorioak —urte horretako ekainaren 3an argitaratu zen, hain zuzen—, eta 2. puntuan zehaztutako kargu publikoentzat soilik duela indar loteslea, kargu publiko horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu eta Kodearekiko atxikipena formalizatu ondoren. Kodearen 18.3 puntuak horrela ezartzen du, zehatz-mehatz ezarri ere: "Kodea banaka atxikitzearen ondorioz, kargu publikodunek eta parekatuek beren gain hartzen dute beren bizitza publiko zein pribatuan betiere Kodean berariaz adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen jokabide eta portaerak izateko betebeharra eta obligazioa".

3.- EJKren aplikagarritasun-eredu subjektibo eta denborazko hori ez da aldatu ekainaren 26ko 1/2014 Legean (Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legea —hemendik aurrera KPJKIG). Hain zuzen ere, lege horren 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan jasotzen dira "kargu publikoen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak": Legea indarrean sartu ondoren soilik dira lotesleak, eta 2. artikuluan zehaztutako kargu publikoak soilik behartzen dituzte, behin kargu publiko horiek ofizialki izendatu direnean eta horiek Legearen 11. artikuluan aipatzen den atxikitze-sistemaren bidez Legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartzen dutenean eta kargu publikoen katalogo "eratzailan" sartzen direnean, zeina Eusko Jaurlaritzak onartu behar baitu lege horren 4. artikulua aginduari jarraikiz.

4.- Beraz, EPB honek esku hartu ahal izateko, aurretik aplikagarritasun-betekizun horiek bete beharko dituzte beren jokabidea zalantzazkoa izatea leporatzen zaien edo jokabidea ikuspuntu etikotik kontrastatzea nahi duten pertsonak. Hala esan dugu orain arte, eta, beraz, oraingo honetan ere ezin gara sartu, ez salatuak izan diren pertsonak kargu publikoak ez diren kasuan, nahiz eta Euskadiko sektore publikoan zerbitzuak eman (ikus, besteak beste 1/2015 eta 1/2017 erabakiak), ez beren posizio instituzionala euskal autonomiako sektore publikotik kanpo duten pertsonen kasuan, nahiz eta kargu publikoak izan zalantzarik gabe (ikus 8/2015 Erabakia).

5.- EPB honen juzgu etikoaren esku jarri den pertsona Eusko Jaurlaritzaren Dekretuz izendatu zen, zeina EHAAn argitaratu baitzen, baita, publizitate ondorioetarako soilik, urte bereko (...)ko EBOn ere.

6.- Bi xedapenen zioen zatian espresuki adierazten den bezala, izendapena Eusko Jaurlaritzari dagokio, hala ezartzen duenez (...)ari buruzko Legearen testu bateginak.

7.- Alabaina, (...)ren lehendakaria egintza autonomiko batez izendatu izanak ez du figura instituzional hori autonomia horretako sektore publikoko kargu publiko bihurtzen. Izan ere,

(...)ak Estatuko legerian aurreikusitako ente publikoen tipologiaren arabera konfiguratutako organismo publikoak dira, eta Sustapen Ministerioaren mende daude, (...)en bidez, zeina Sustapen Ministerioa organismo publikoari atxikita baitago aldi berean. Organismo horien egitura instituzionala Estatuaren Administrazio Orokorrean txertatzen da zalantzarik gabe, kontuan hartuta ezen, aplikatzen zaien legeria espezifikotan ezarritakotik harago, haien jarduketa eta funtzionamendua Estatuaren Aurrekontuen Lege Orokorren mende dagoela, eta, era osagarrian, Estatuaren Administrazio Orokorren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen mende ( EPetaMNLren 24.1 artikulua).

8.- Kokapen instituzional horrekin bat etorriz, (...)ren lehendakaria ez dago kargu publikoen katalogo eguneratuan sartuta, zeina KPJKIGren 4. artikuluan baitago aurreikusita eta martxoaren 20ko 36/2018 Dekretuz onartu baitzen; katalogo horretan bai agertzen dira, aitzitik, beste kargu batzuk, baina zalantzarik gabeko adskripzio autonomikoa dutenak, hala nola Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzaren mendeko (...)ko zuzendaria edo (...) SA-ko zuzendari nagusia, bi-biak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren mendekoak.

9.- Katalogoak izaera eratzailera du, eta horrek esan nahi du beharrezkoa dela kargu publikoa katalogoan egotea legea aplikatu ahal dakion (KPJKIGren 4.2. artikulua); beraz, argi dago (...)ren lehendakariari ez dagokiola aipaturiko araua aplikatzea eta, horrenbestez, ez dagoela EJKren "hartzaileen" artean.

10.- 1/2015eko Erabakian hau adierazi genuen anonimoki salatua izan zen zuzendari-talde bati buruz: EAEko Administrazio Orokorreko edo Erakunde Administrazioko goi-kargudunen kasuan edo hari atxikitako, lotutako edo haren mendeko erakunde publikoetako zuzendaritza-karguen kasuan, beste edozer izapide bideratu aurretik, egiaztatu beharra dago ea 2013ko maiatzaren 28an Gobernu Kontseiluak onartutako EJK izenpetu dutenen artean dauden salaketan adierazitako pertsona horiek, kasu horretan soilik izango bailitzateke egoki EJKren atalen bat hautsi ote duten aztertzea. Eta horri buruz gogorarazten genuen EJK ez dela *erga omnes* indar loteslea duen arau juridikoa, printzipio, balio eta jokabide etikoen katalogoa baizik, eta hari atxiki zaizkion pertsonak bakarrik bete behar dutela nahitaez, betiere haren aplikazio-eremu subjektiboan egonez gero. Kontuan hartuta (...)ren lehendakaria ez dagoela –ikus den bezala– KPJKIGren 4. artikulua bidez onartutako goi-kargudunen katalogoan, eta ez duela EJK-ko atxikipena formalizatu, ez dago EJKren agindu etikoen mende, ez eta kode hori betetzen den kontrolatzeko ezarri diren EPB hau bezalako jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoen mende ere.

Hori guztia aintzat hartuta, hau da Etika Publikorako Batzordeak aho batez hartutako

**ERABAKIA:**

Ez onartzea (...)ko (...)ren lehendakariaren jarduketaren kontra jarritako salaketa, arrazoi hauek direla medio: kargu publiko hori ez dago sartuta ez Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen aplikazio-eremuan ez kargu publikoen katalogo eguneratuan, eta ez da agertzen Etika eta Jokabide Kodearen hartzaileen artean.



**Josu Iñaki Erkoreka Gervasio**  
**Etika Publikorako Batzordeko lehendakaria**

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 5a.**